

KOSTU EGITURA

Kostu egitura gure enpresa aurrera ateratzeak dakartzan kostu guztiak dira. Kostu hauek hainbat taldetan sailka ditzakegu:

- **Kostu finkoak:** janaria eramateko bizikletak dira bakarrak. Izan ere, ez dugu ez gailu informatikorik ez alokairurik ordaindu behar, gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua eskaintzeko ez delako horrelako gauzarik behar.
- **Kostu aldakorak:** langileen soldata izango da gure enpresaren kostu aldakorra. Egiten ditugun garraio kopuruaren arabera, gehiago edo gutxiago irabaziko du enpresak edo langileak, eta honen arabera langileek soldatak jasoko dituzte. Horrez gain, batzuetan tailerretan ere kostu batzuk izango ditugu, gurpila zulatu zaigulako berria jarri behar dugunean bezala. Gainera, janaria garraiatzeko kaxa bakoitzaren kostua 7€-koa izango da eta Amazon enpresatik internet bidez erosi behar dugunez, bidalketa gastuak 1€ izango dira. Beraz, 8€-ko gastua izango dugu kaxei dagokienez.
- **Hedapen-ekonomiak:** gure kasuan, enpresaren bizikletak beste gauza batzuetarako ere erabilgarriak izan daitezke, baina erabilpen profesionalerako soilik erabiltzen saiatuko gara. Janaria eramateko eta baita marketing-erako ere. Gure bizikletek kartel handi bat izango dute atzealdean, hau ikusgarria izango da eta horrela bezeroak/kontsumitzaileak errazago erakartzea lortuko dugu.

